

GENETIKA. Gizakion gaitzak ulertu eta terapia genikoak ezartzea dute xede



DAVID J. PHILLIP / APA

Abere klonatuen zoologiko ttipia atondu dute Texasen

Texasko (EEBB) A & M Unibertsitateko albaite-riek klonatutako animalien zoologiko bat sortu du-te. Adierazi dutenez, medikuntzaren arazo handiei arrapostua bilatu nahian egin dituzte abere mota ezberdinen klonazioak. Klonazioetan parte hartu duen Jorge Piedrahita kolonbiarraren esanetan, «txerriak, zezenak eta ahuntzak klonatu ditugu,

baina arrapostu horiek aurkitzetik arrunt urrun gaude. Horrek esan nahi du giza jakituria gizakiak klonatzeko aukeran pentsatzetik urrun dagoela». Xede nagusia gehienbat txerri transgenikoak lor-tzea da, gizakion gaitz batzuk ulertzeko eta terapia genikoak ezartzeko. Alta, zenbait animalia —txa-kurra, kasu— ezin izan dituzte klonatu.

IKERKUNTZA. Medikuek ez dakite nola jokatzeko duen GBV-C birusak

Birus hepatiko onbera batek eriengan hiesa muga lezake

Bi birusak jota daudenak bakararra dutenak baino gehiago bizi dira

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Iowako (EEBB) Unibertsitateko eta Beteranoen Auzietarako Zentro Medikuko ikertzaile tal-de batek ezusteko aurkikuntza egin du berriki; hepatitis G-ren birusak GIB birusaren —hiesa eragiten duena— hazkundea atzeratzen ahal duela, alegia.

Zientzialariek ez dakite ze-hazki nola atzera dezakeen bi-rus hepatikoak hiesaren hedad-ura. *New England Journal of Medicine* aldizkarian kaleratu ikerketan azaldu dutenez, or-dea, GIB birusak kutsatutako gaixoei, hepatitis G motaren bi-rusak jota badaude, kutsatu ga-bekoek baino gehiago bizitzeko joera erakusten dute.

Ikerketak sakondu

Ikertaldeak hiesak jotako 362 gaixo aztertu zituen; horietatik 144k hepatitis G — GBV-C dei-tua— ere bazuten. GBV-C biru-sak hepatitis C dutenen %15 in-guru kutsatu ohi ditu, baina he-patitis C-ak ez bezala, GBV-C birus hepatikoak ez du bestela-ko sintoma klinikorik eragiten.

JACK STAPLETON

Iowako Unibertsitateko ikertzailea

«Birus hepatikoak GIB birusaren hazkundea nola mugatzen duen zehazki ulertzeko lanean ari gara»

Laborategian egindako probetan birus hepatikoa eta GIB birusa jarri zituzten elkarrekin zelula hazkuntza batean. Ikusi

zutenez, bi birusek kutsatutako zelulek GIB birusa soilik zuten zelulek baino %30-40 GIB birus gutxiago ekoitzi zuten.

Hori ikusirik, zientzialariek ikerketaildo hori atxikiko dutela adierazi zuten, birus hepatikoak GIB birusa nola inhibitzen duen jakiteko. «Birus hepatikoak GIB birusaren hazkundea nola mu-gatzen duen zehatz-mehatz ulertzeko lanean ari gara orain», esan zuen ikerketa gidatu zuen Jack Stapleton doktoreak.

Produktuen banaketan lan egiten duen Gipuzkoako enpresa batek GERENTEA ("Ger" Erref.) behar du.

ESKATZEN DA:

- * Goi mailako lizentziatura (Ekonomiako edo Enpresa Zientzietako lizentziatura, ingeniari-tza edo antzekoa) edo banaketa arloan eskarmentua izatea.
- * Taldeak gidatzeko trebezia.
- * Harreman publikoetarako gaitasuna.

KONTUAN HARTUKO DA:

- * Datu baseak kudeatzen jakitea eta horretan eskarmentua edukitzea.
- * Datu estatistikoak aztertze gaitasuna.

ESKAITZEN DA:

- * Lan kontratua.
- * Bakoitzaren ekarriaren arabera lan baldintzak.

Interesatuak, bidali kurrikuluma eta argazkia 1281 posta kuxara, irailaren 12a baino lehen.
Gutun-azalean erreferentzia zenbakia aipatu.

LAGUNAGAN

POBREZIA

Guatemala jasaten ari den goseteari aurre egiteko laguntza antolatzen ari dira nazioarteko erakundeak

Guatemalako zenbait udalerritan une latzak igarotzen ari dira, herritar askok ez baitute zer janik. Egoeraren larritasunaz ja-betuta —aurten jada 42 lagun hil dira gosez—, nazioarteko zenbait erakunde laguntza ekimenak antolatzen hasi dira. Es-tatu Batuetako Garapenerako Nazioarteko Agentziak, esate baterako, arroza, artoa, soja eta olio bidaliko ditu. Elikagaien Munduko Programak ere 1.134 tona elikagai bidaliko ditu. La-rrialdiko laguntzak dira guztiak.

IKERKUNTZA

Begietako zelulak nola sortzen diren argitu du ikertzaile talde batek

Espainiako Severo Ochoa Biologia Zentroak eta New Yorkeko Unibertsitateak el-karleanen egin ikerketa ba-tean begietako zelulak nola sortzen diren argitu dute. Euli baten begia ikertzen egin dute aurkikuntza, eta *Nature* aldizkarian argitara-tu dute. Antza, orain arte begietako zelulen sorrera-ren inguruan zegoen hipo-tesia atzera bota du ikerke-tak.

IKERKUNTZA

Bushek ikerketarako onartutako zelula-ama lerroen artean soilik 24 erabili ahal izango dira

Estatu Batuetako presiden-te George Bushek orain aste batzuk giza enbrioietatik erauzitako 64 zelula-ama le-rro ikerketara bideratu ahal izango direla esan zuen. Zientzialariek orain salatu dutenez, ordea, 64 horieta-tik soilik 24 erabili ahal izan-go dira. Horrek, zelula ho-rien erabileraren inguruan dagoen polemika handitu egin du.



JASON PLOTKIN / AP

Ustekozo meteoritoaren aztarna.

ESPAZIOA

Distira arraro batek harridura sortu zuen atzo Estatu Batuetako iparreko aldean

Estatu Batuetako iparreko aldeko hainbat herritarrek —New York eta Ipar Karolina estatuetan— distira berezi bat ikusi ahal izan zuten atzo egunsentian. Distirak harridura handia sortu zuen, eta irrati, telebista zein larrialdi zerbitzuetara dei-tu zuten ehunka herritar askok. Kezkatuta. Ikertzaileek hasie-ra meteorito batek atmosferaren kontra talka egitean sortu distira izan zitekeela esan zuten. Militarrek, ordea, espazioan aspaldi erretiratutako kohete bat zela azaldu zuten.

Zuzendari-gerentea (Erref. "KOM")

Gipuzkoako Komunikazio enpresa berri batek Zuzendari-gerentea behar du. Euskal komunikazioaren eta multimediaren ezagutza duen norbait nahi dugu, Ekonomiako edo Enpresa Zientzietako lizentziaduna, Ingeniaria edo pareko titulua duena, harreman publikoetarako eta salmentarako gaitasunarekin eta talde-gidari eta dinamizatzaile izateko ahalmenarekin.

Lan-baldintzak elkarren artean adostuko ditugu.

Interesatua bazaude, bidali zure curriculum eta argazkia, irailaren 19a baino lehen, Donostiako 572 posta-kuxara.